

# «Euskaldun, baina jende normal gisa bizi nahi dugu»

Iparraldeko lehen ikastolaren abiarazlea izan zen, eta Seaskaren lehen burua. Politikan ere engaiatua, kritika franko jaso ukan du beti, zartakoak ezker-eskuin. Bera, baina, bere bidearen egiten saiatu da, etxekandere, anestesista, euskaltzale eta militante lanetan.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

**1942an sortu zinen Angelun, Bigarren Mundu Gerra garaian.**

Beldurra zen! Bi urte nituelarik izan da Miarritzeko bonbardaketa, eta gaizki. Eta gosea. Eta alemanak. Gure etxean ofizial bat egon zen, komandantea, euskaraz egiten zuena. Oroitzen naiz, bai. Haren buruan sartua zen euskara. Eta gure ama ere, ikusiz nola aleman hark euskaraz egiten zuen, harrিতua zen bera ere. Hortik, balioa eman diote euskarari gure etxean. “Kanpokoak euskaraz ari dira, eta gu ez! Nola liteke!?”. Horren ondotik hasi zen gure ama euskaraz ikasten, gerla denboran!

**Zuen etxean ez zen euskaraz egiten, beraz?**

Ez. Ama ikasten ari zen. Filipe Oihanbururekin eta hola. Gazte-gazteak ziren! Etxean ez zen euskararik izan, kantua bakarrik, hori euskaraz zen! *Haurrak ikas zuzue, euskaraz mintzatzen...* Kantu herrikoiak, gure amaren laguntzaileekin ikasi genituenak: sukaldaria, garbitzailea... Etxe ondoan moja eskola genuen eta gure amak galdegin zuen niri euskaraz irakurtzen erakasteko. Baina ez nuen hitz egiten. Gero, idazten ere ikasi nuen, aita Afrikan zen –Boli Kostan egon zen lanean 52 urtez–, eta astero eskutitza galdegin zigun, euskaraz. Hortik hasi gara euskaraz ikasten.

**Medikuntza ikasi zenuen Bordelen, eta besterik ere bai: Enbata.**

Han nintzen Euskal Herriko ikasleekin harremanetan hasi. Irakasleak ere baziren: Eugene Goienetxe, Haritselhar... Ekitaldiak, mintzaldiak... antolatzen genituen. Mixel Labeguerie ere ekarri genuen. Elkarte hartan nintzen, *Embata* zuen izena, eme-z. Egun batez, deliberatu gara biltzar handi bat egitera, lehengo eta orduko ikasleak bildurik: Saran egin genuen,

hango trinketan. Gauza asko Saran egiten dira beti! Han ziren Ximun Haran, Jacques Abeberri, Mixel Labeguerie, Jean Fagoaga, Mixel Burukoa ere –pentsatzen dut–, eta aldizkari bat egitea erabaki genuen: *Embata*, eme-z betiere. Baina ateratu zelarik bazuen kolore berezi bat –erratan ahal dut–, eta kolore hori ez zen ikasleen gustukoa. Ukan ditugu bilkura batzuk –Baionako euskal erakustokian batez ere–, eta galdegin diote Ximuni eta besteri aldatzeko izena. Eta, aldatzeko, zer egin dute? Eme beharrean, ene jarri dute. Nire lagunak kexatu dira eta beste elkarte bat sortu dugu: EGIA, Euskal Gazte Ikasleen Alkartasuna.

**Enbatarekin hautsi zenuten.**

Bai.

**Garaituan ezkondu zinen, 1965ean.**

Angelun izan ginen bizitzen; amaren etxean, hasteko. Lehenbiziko bi haurrak han sortu ziren. Loreduna zuen izena gure etxeak. Gero Baionan kokatu nintzen, han ari bainintzen lanean.

**Lan zaila ukan duzu: anestesista izan zara.**

Ez duzu tronpatu behar! Hamabost mila lagun lokarrazi dut, *grasso modo*. Xifra polita da, eta kasik denak iratzartu dira, ez baita gauza erra-

## Nortasun agiria

Argitxu Noblia (Angelu, 1942). Mediku anestesista. Euskaldun eta euskaltzale, abertzale eta politikari. Embata mugimenduaren ezagutza egin zuen Bordelen Medikuntza ikasketak egiten ari zela. Ipar Euskal Herriko lehenbiziko ikastola sortu zuen (1969) etxean, orduan zituen hiru haurrek euskaraz ikas zezaten. Seaskaren lehenbiziko burua (1969-1975). Baionako Herriko Kontseiluko kide (1989-1995) Henri Grenet-en zerrendan, hango udalak diruz lagundu zuen lehen ikastolaren irekitzen. 1997an PNBren zerrendetan ageri zen, eta Ipar Buru Batzarreko lehendakari ere izana da. Kargua utzi zuen aurtengo udaberrian, politikakeria franko tarteko.

• PERTSONAIA •  
**Argitxu Noblia**





## Argitxu Noblia

za. Ez da bakarrik lokarrazazi behar, iratzarri behar da gero!

### 1969an sortu zen Ipar Euskal Herrian lehenbiziko ikastola. Nola?

Nik haurrak nituelakotz! Aitor, Mikel eta, gero, Ellande sortu zen. Beti banuen buruan nola egingo ote nuen haurrek euskara mintza zezaten elkarrekin, lagunekin eta beste. Eta, hain zaila izan zenez niretzat, pentsatu dut hastapenetik hasi behar dela euskara erakusten. Egun batez, senarrarekin eta beste lagun batekin hitz egiten ari nintzela, esan nuen: “Norbait aurkitu behar dut haurrekin euskaraz hitz egiteko, jolasteko eta bizitzeko. Ez nuke nahi laguntzaile bat, baizik irakasle bat edo hola”. Han gurekin zen lagunak esan zuen eza gutzen zuela norbait.

### Libe Goñi zen, Lazkaon sortua. Hemengo ikastolako lehenbiziko andereñoa.

Libe etorri zelarik gurasoek ez zuten deliberatu haurrak ikastolara ekartzera, bereziki gerla denboran etorritakoak. Guk pentsatzen genuen haiek nahiko zutela, baina ez zen batere horrela pasatu. Haiek guztiz frantsestu ziren.

### Zuen etxeko ganbaran ezarri zenuten lehenbiziko ikastolaren hazia, zuen haurrekin.

Bai. Hiru, bi eta hilabete batzuetako haurra. Baionan ginen. Aitor eta Mikel hasi zirelarik euskaraz hitz egiten, ondoko lagunak, familia-koak... ohartu ziren ene haurrak hasten zirela euskaraz. Harrituak ziren. Batzuk, bederen.



Eta galdegin didate: “Nik ere badut haurra, ekartzen ahal dizut, pixka bat euskararazteko?”. Eta baietz erran nuen. Baina etxe hura ez zen egokia: bigarren estaian ginen, igogailu gabe, tokirik gabe, teila-tupean... Eta bost haur dituzularik hor, zure gainean korrika, laster nekatzen zara. Etxekandereak ez zuen hura gustuko ukan eta beste toki bat aurkitu dut Miarritzen, etxetto bat, baratzearrekin... Ongi zen. Han ginelarik, ikastola bat muntatzeko gogoeta etorri zaigu, eta beste lokal bat aurkitzen hasi ginen, beste haurren errezibitzeko. Baionan hasi ginen, Cordeliers karrikan, Enbataren

lokalean, Mixel Burukoa medikuaren laguntzarekin. Konfiantza nuen harekin. Hilabete batzuk egin genituen han, hura ere ez zelakotz egokia: lehen estaia, karrika ttipi bat, hertsia, argirik ez, leihoa... haurrak leihotik erortzen ahal ziren zuzenki... Besterik behar genuen. Mixel Burukoaren lehengusu Jacquesekin mintzatu gara, Miarritzeko Braouko parropiaren lokal baten ukaiteko. Han egon dira haurrak. Haurren guraso elkartearen izenean nik sinatu nuen. Han hobekiago ginen, baina ohartu ginen ez zela luzarorako izanen, eta xerka ari izan gara beti, beste lagun baten bidez –Lulu Garat, pintatzailea–, Arrangoitzeko lokala ukan dugun arte.

Garai horretakoak dira, 60ko hamarkada hondarrekoak, Argitxu Nobliak Idahoko Estatu Idazkari Pete Cenarrusari egindako eskutitzak.



# BILBO

Urriaren 16tik azaroaren 1era, Arenalen

## EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi irakurriz!*

Nire ahizpa bat, Kattalin, Idahora joan zen. Pentsatu nuen egoki zitekeela hura han zeno bisitan joan eta han ibiltzea. Bi gauza banituen buruan: lehenik, denbora ez galtzeko, pentsatu nuen behar nuela hango ospitale batean ibili, jendea lokarrarazteko nola egiten zuten ikusi eta ikasi; bigarren, uste nuen han dirua bildu ahal izango genuela hemengo ikastolarentzat. Baina ez. Euskaldun gisa joaten ahal nintzen jendeen ikusterat, dantza egiterat eta hori dena bai, baina garai hartan ikastola baten muntatzea... Komunista ginela pentsatu zuten. Hila-bete egin nuen Pete Cenarrusaren etxean.

**1975 arte izan zinen Seaskako lehendakari. Bitartean, Burgosko epaiketa, Carrero Blanco-ren hiltzea, Txiki, Otaegi eta beste hiru lagun-fusilatzea, Francoren heriotza, ETA, errefuxiatuak... Garai beroa...**

Beroa zen, bai. Baionako katedralean gose grebak egin direlarik, galdegin didate mediku lana egiteko. Egun guztiz pasatzen nintzen grebalarrien ikusten. Eta, horregatik ere, gaizki ikusia izan nintzen, hura komunista giroa izaten ahal zela eta. Problema izan dira. Baina hemengo jendeak Frantziara begira egiten zuen bere bizia, eta ez zen deus aldatu.

**Zuena, mundu txiki bat?**

Ghetto bat, kasik. Ikastola ere, ghettoa. Lehenengo urtean zaila izan da jendeek onararaztea ez genuela ghettoan egon nahi. Hemengo jendeekin nahi genuen bizi. Horregatik ere utzi dut Seaskako lehendakaritza. Ireki behar genuela erakutsi nahi genuen, ez genuela ghettoan bizi nahi. Eta ene ondoko lehendakari Jean-Pierre Seilliez, frantses irakaslea, portugaldar batekin ezkondua. Ikastolak ezarri nahi zituen herri ttiki guzietan, oraingo Euskal Herriko mugetatik urrun ere bai, Pauen, Oloronen, Parisen ere izan da saiatze bat... Baina hemengo andereñoak ez ziren horren alde. Eta Jean-Pierrek ere ukan ditu problemak. Pentsatzen zuten sobera frantsesa zela. Izan dira istorioak...

**Zenbat istorio euskaldunen artean!**

Beti! Ez da gelditu. Hasi eta gero ez da gelditu!

**Hori dugu hastapeneko problema.**

Bai, pentsatzen dut. Eta berdin pentsatzen zuen gure aitak ere. Ikusten zituen Afrikan zirenak, eta esaten zuen: "Guk ez dugu suertetik. Ez gira beltzak, eta ez gira juduak. Orduan, ez dugu sekulan ezer ukanen. Ez gira elkartzeko ahal!"

**Horixe oraingo problema ere.**

Berdin. Uste dut elkartzeko garaia izanen litzatekeela, Europa mailan. Baina ez da horrela pasatzen.

## Arraroa

**"Nahi baduzu, 'arraroa' nintzen. Emazte bat, mediku. Mediku bat, haurrak ukaten... Ez nuen egin behar, hasteko! Berehala hiru haur, segidan! Jendeek esaten zuten: 'Emazte hori ez da burutik ongi!'. Sekulakoak entzun nituen. Anestesistaren etsamina pasatzeko Pariserat joan ginen. Justu orduan ukan nuen bigarren mutikoa, Mikel. Biak batean: etsamina eta haurra. Trenean ginen eta ni, bularra ematen nire haurrari. Nire lagunek, etsamina pasatzera nirekin batera zihoazenez: 'Bo! Portugesa zira zu!'. La portuguese. Nitaz trufatzen. Bai, 'arraroa' nintzen".**

**Uste duzu ETA gabe, biolentzia gabe, euskaldunok bat hartuko genukeela?**

Ez dut uste. Ez naiz segur. Boisen izan naizelarik ikusi dut zer laguntza ukan dugun, hutsal. Ez zen interesik. Guk, aldiz, normal bizi nahi dugu, euskaldun baina jende normalak.

**Euskalduna ghettoan bizi da oraindik, eman dezagun, Miarritzen?**

Hala ikusten dute bertako jendeek. Gutxiago. Orain euskara sartuago dago. AEK, ikastola, pankartak, hiriko seinaleetan... euskara agertzen da. Lasaitzen hasi da giroa.

**Problema gehiago: zergatik agertu zinen 1985ean Henri Grenet-en zerrendan?**

Normal izateko. Nire haurrak hazi ziren. Ghettoan. "Euskalduna zira? Ez dakizu frantsesa?". Problema hor ere... 1985ean, hauteskundeak izan zirelarik, galdegin zidaten haren zerrendan izena emateko. Pentsatu nuen nire haurrei zerbait zor niela, ziren bezala izatera bortxatu nituela, bizi izan zuten bizitza bizitzera bultzatu. Banuen kulpatxo bat ere nire buruan, eta zorra bete nahi nuen. Uste dut horregatik egin nuela. Ofizialki, berriz, Baionako hiriaren gestioa interesgarria dela, ikastolaren laguntzeko, eta kontu horiek. Baina ez zen hori...

**Zure haurrekin zenuen zorra.**

Uste dut hori izan dela, bai. Zerrendan sartzeko erraztasunak ere ukan ditut, Henri Grenet, Baionako auzapeza, lehendik ezagutzen nuen, hura mediku baitzen eta ni lanean ari izan nintzelakotz hamabost urtez berarekin, beraren klinikan.

**Aitzinatu zinen batere, normaltasunean?**

Uste dut nire haurrak pozik izan direla. Ama ikusi dute giro orokor batean. Niharek problema ukan ditut Baionako Kontseiluan. Ez nintzen haien maila berean. Sobera borrokatu nintzen, sobera abertzale... Auzapezaren laguntza banuen, eta horrek salbatu nau. Denbora hartan izan da Baionako lehenbiziko ikastola ofiziala: hitzarmena, hiriak eman lokal publikoak... Jean-Louis Maitia zen lehendakari orduan. Zerbait lortu nuen, beraz. Eta hor dago oraindik Baionan, lehen mailako ikastola. Arrangoitzen zena ama ikastola baitzen. Urrats handia egin zen. 1989-90ean izan zen hori.

**Eta 1997an, PNBren izenean hauteskundeetan ageri zara...**

Ghettoan sartzen naiz berriz.

**PNBn ere, problemak. Batean, Iparraldeko Buru Batzarreko lehendakari; bestean, kargua utzia. Aurten berean. Zer duzu politika?**

Uste nuen euskararen normaltasunean zerbait irabaziko genuela. Modu bat zen gauza

## GALDE SHORTA Ez duk hamahiru

1. Nobliatarrak.  
Txokolateari lotua da.
2. Enbata.  
Ona eta gaizkia.
3. Seaska.  
Berdin, ona eta gaizkia.
4. Euskara.  
Jarraitzekoa da, nik uste.
5. Libe Goñi.  
Lagun mina.
6. Ipar eta Hego Euskal Herriak.  
Ezin lokartuz.
7. ETA.  
Lehen ulertzen nuen, baina orain ez.
8. Bakea.  
Denentzat beharrezkoa.
9. Henri Grenet.  
Gizon zintzoa.
10. PNB.  
Aldakuntzak egin behar ditu.
11. Euskal Herria.  
Bere mugak ireki behar ditu.
12. Argitxu Noblia.  
Emazte zahar bat.
13. Hamahiru.  
Ez duk hamahiru.



hori agertzeko, eta giza eskubideak ez zirela beti errespetatuak, gure mintzairan hitz egiteko eskubidea ez zela ezagutua eta baliatua.

### Iparraldeko politika —eta Iparraldea bera—, konprenitzen da Hegoaldean?

Ez, nire ustez ez. Ametsetan izan gara pentsatuz bat besteari lotu behar zela. Orain esaten ahal dut, argi-urteak dira Iparraldetik Hegoaldera... Etsenplu bat: EBBko idazkaria, Belen Greaves, heldu delarik Iparralderat, zer egiten du? Erosketak! Hango euskaldunek, eta biztanleek, ikusten dute Iparraldea turismoa bezala, etxea erosteko, pastorala Zuberoan, eta gero, gero, gero...

### Baduzu Bakea Bai elkarte eta ekimen bat abiarazia, Bake Besta... Bakea, nola?

Nik, mediku gisa, ama gisa, gerla denboran sortu pertsona gisa, ez dut onartzen ahal nehor hiltzea edo kolpatzea. Mediku gisa, sendatu ditut jendeak. Ez dut ulertzen ahal, hain zaila den bizitzea nola hausten ahal den. Bakea bai elkarte sorrarazi dudalarik duela hamar bat urte, beste saio bat zen, ghettoan ez dugula bizi nahi, besteekin bizitzen ahal garela... Ez nintzen ados deklarazio batzuekin: "Euskal Herria ez da saltzen". Saltzen da! Nork saltzen du? Euskaldunak! Orduan ez erran ez dela saltzekoa. Horri buruz, jendearen atakitzea ez dut onartzen.

## GAL

**"Beldurra. Kasu ematen nuen, nihaurek. Etxera sartzean beti begiratzen nuen gibelean... Zozokeria batzuk, nahi baduzu, baina ez nintzen lasai. Lagun batzuk desagertu dira, edo lagunak lagunak. GALekoa ez nuen onartu. Mediterrandean garaian ezarri zuten, eta nik Frantziako ezker alderdiei egozten diet kulpa, onartu zutelakotz GAL Frantziako lurraldean horrela ibiltzea. Onartu zuten, bai. Lagundu zuten".**

### Kritika onartzekoa da.

Hala uste dut. Nik ere ez dut dena ondo egin, ukan ditut kritikak ere. Pentsatzen dut ene haurrak direla ene lanik ederrena, haiek emanen dutela jarraipena. Erakundeetan, uste dut ikastola nahiko gerizatu dela, baina ez du euskara salbatuko Iparraldean. Askoz gehiago behar da. Orain Europako diputatuekin egiten dut lan, François Alfonsi korsikarrarekin, adibidez. Izaskun Bilbaok bakarrik ezingo du lagundu Iparraldeko eremua; laguntzen ahalko du, baina, guretzat, François Alfonsi da gure ordezkari nagusi eta ezinbestekoa. Eta haren ondoan, Jose Bove. Europe Ecologie gure alde dira, eta Regions et Peuples Solidaires RPSn (Eskualde eta Herri Solidarioak) aspaldi sartu nintzen, eta segitzen dut. Pentsatzen dut Europan egin behar direla gauzak, eta ez bakarrik ikusi gure herriko aferak. Egin behar da. Nik nire haurrekin egin ez banu, beharbada ez litzateke hemen ikastolarik izaneren.

### Egin dezagun galdera Miarritzen, Hegoaldean uzten ez digutenez: non da Jon?

Ez dakit.

### Ikusiko dugu berriz?

Nik uste ezetz. Itsasoan, edo erreka batean... Zenbat eta denbora gehiago pasa, orduan eta esperantza txikiago Jon Anza berriz azaltzeko. ■

[www.argia.com](http://www.argia.com)  
helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea.